IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3465

EDIKTUA, 2015eko uztailaren 20koa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariarena, zeinaren bitartez jakinarazten baitira Gizarte Ekonomiaren zuzendariaren zenbait ebazpen, Gizarte Ekonomiako laguntzen itzultze-espedienteak amaitzeari buruzkoak.

Ebazpenok jakinarazten saiatu arren, ez da posible izan. Hori dela-eta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen –Sektore publikoa arrazionalizatzeari buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatutakoaren– 59.5 eta 61. artikuluetan xedatutakoa eta Administrazioaren erreformarako beste neurri batzuetan xedatutakoa kontuan izanik, honako iragarki hau argitaratzen da.

Interesdunentzat norbanako jakinarazpenaren balioa izan dezan argitaratzen da iragarkia, eta, gainera, ohartarazpen hauek egiten zaizkio:

Interesdunek eskuragarri dute ebazpenaren testu osoa Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Ebazpen horrek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu eta Laneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ediktu hau Estatutuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe ezartzen baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 114. artikuluan.

Espediente zenbakia	Sozietatearen izena	Zenbatekoa
EM 090-13	Pavimentos PB, S. Coop. Pequeña	2.664,00
EM 112-13	Koloka Materiales Obras y Servicios, S.L.L.	3.552,00
EM 172-13	Bilbotruke, S. Coop.	1.538,40
AT 004-13	Eratu Architectural Proyects, S. Coop. Pequeña	2.719,38
AT 043-13	Maielectric, S. Coop. Pequeña	1.740,12

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 20a.

Gizarte Ekonomiaren zuzendaria,
ALFREDO ISPIZUA ZUAZUA.